

BINILOZKO DISKOAK

Desagertu gabearen itzulera

Kanpai-galtzekin gertatu bezala iraganera itzultzen ari gara, hamarkada batzuk atzera. Musikak ere hartu du hibe hori eta 1980ko hamarkadaren hasierara eraman gaitu. Orduan hainbeste maitatutako biniloak salmentak laukoiztu ditu.

IURE ALTZIBAR

Argazkiak: Junkal Amores

MODERNITATEAK eta garapen teknologikoak irensten gaituen garaiotan bada lekurik euskarri analogikoaz gogoratzen denarentzat. Mp3 eta iPodak dira musika euskarririk arrakastatsuenak, baina desagertua zirudien biniloak ere badu zeresana oraindik. Espezializatutako hainbat denda eta Internet dira saltzaile, eta pertsona berriak, dirudienez, erosle.

Multinazionalak ez diote muzin egin nahi aukera berriari eta biniloa sustatzen hasi dira. Klasikoen bilduma lanak izan ziren aitzindari eta egungo taldeen ekoizpenak jarraitzaile. Pink Floyd, Coldplay, Manu Chao eta Radiohead taldeak dira “ausarten” artean sailkatu

beharreko batzuk. Eta emaitzak ikusita arriskuak arrakasta dakarrela dirudi. Hala agertzen dute hainbat argitalpenek, Espainiar Estatu binilo salmenta iaz laukoiztu egin zela diotenean. Desagertutaz emandakoaren itzulera hitz egin beharko genuke, beraz.

Binilo salmenta eguneroko bizibide dutenek ez dute hain garbi ikusten, ordea. “Biniloa itzultzen ari dela esatea ez da zuzena, ez baita inoiz joan”, dio Juan Carlos Garciak. Hamazortzi urte inguru daramatza Irungo Bloody Mary dendan mota horretako diskoak saltzen eta ongi baino hobeto ezagutzen du merkatua. “Badirudi CDak indarra galtzean multinazio-



Binilozko diskoak

erdiko kaiera

nal guztiek hortik jasotzen zuten dirua biniloetatik lortu behar dutela, ondorioz gehiago sustatzen hasi dira. Baina binilokak beti argitaratu eta saldu izan dira”.

Bloody Mary bezalako denda espezializatuek bermatu dute, hain zuzen ere, merkatuak bizirik jarraitzea. Banatzaile handienek binilo dendei saldu gabeko produktuak itzultzea debekatu ostean, inor gutxi ausartu zen xarmaz beteriko produktu haiek saltzen, ez baitzen edonolako arriskua. Orduan bizi-raun zuten gutxi batzuek eman diote hauspoa orain artean, eta euren lanari buruzko ikuspegia ere aldarazi zenbaiti: “Ez naiz dendari sentitzen, diskoak erosten jarraitzen duenarentzat horiek lortzen dituen pertsona baizik”, dio Garciak. Izan ere, gaur egun ez dago duela hogeitaz urteko erraztasunik eta dendariak euren harremanen bidez lortu behar dute materiala.

Bloody Hotsak

Euskal Herrian biniloak ekoizteko proiektu berria sortu zen iaz: Bloody Hotsak zigilua. Juan Carlos Garcia eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen arteko elkarlana da eta oraindik aukerarik izan ez duten taldeak ezagutaraztea dute helburu. Badakite ez dela salmenta handiak ekarriko dituen egitasmoa baina kopia kopuru jakin bat saldu taldeak lagundu ahal izango dituzte. Diskoetxe handiek eskaintzen ez duten aukera emango dute, beraz: “Multinazionalek ez dute talde berrien alde egiten eta horrek ahalbidetzen die inolako arriskurik gabe diru sarrera handiak lortzea. Gureak arrisku handiagoa du, baina musikari diogun maitasuna kontuan hartuta merezi du ahaleginak”.



Goiko argazkian, Juan Carlos Garcia, Irungo Bloody Mary dendako jabea. Behean, denda horretan salgai dagoen binilo bilduma zabala.



Flaming' Groovies taldeko kide izandako Roy Loney-k eta Señor No talde donostiarrak elkarlanean grabatutako binilo singlea izan da zigilu berriak kaleratutako lehen lana. Horren jarraipena izango da uda ondoren bi taldeek argitaratuko duten L.Pa. Sixty Sexers, Sarris Rock & Roll Trio, Thunder Express, Las Membranas eta Los Creyentes taldeen lanak ere emango dituzte ezagutzera.

Orain arte ekoiztutako singleak jendearengana helarazteko tresna indartsuenetakoa izango da Internet, eskaera egon arren mota horretako produktuentzat saltoki gutxi baitago. “Jendeak esaten du sarearen agerpena txarra izan dela, baina positiboa izan da. Badakigu baliabide horri esker jendeak taldeak entzungo dituela eta musika hori gustuko duenak erosi egingo duela”, zehaztu du Garciak. Gazteenengana ere heltzeko bidea izan liteke sarea, biniloa musikaren historian zehar galdu-tako tresna modura ikusten baitute horietako askok.

Ezin da jakin zein den bere bereizgarria, zergatik hainbeste urte igaro ondoren ere hain bizirik jarraitzen duen euskarriak. Ehunka arrazoi egon litezke: eskaintzen duen soinu garbia, zalantza askoren ostean CDa hautatu zutenen itzulera, gazteenek orain ezagutu izana, taldeek duten konfiantza, ia kartel itxurako azalak, bere garaikoen nostalgia edo besterik gabe betidanik atxiki zaion xarma. Argi dagoena da gero eta aparailu txikiagoek arrakasta lortzen duten gizartean biniloak bere txokoa izaten jarraitzen duela, urteetan joan-etorrian ibilitako modaz harago. Haren maitalerik sutuenek ere hala diote: “Ez da inoiz moda kontua izan, eta ez da inoiz izango”. ■

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela lau urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa duen bilduma honen xedea ezagutza edonoren esku jartzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingoz, sei dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.

gure artean euskaraz